


## BALIO PROPOSAMENA

Bezeroek gure zerbitzua hautatzen badute, ikasketen inguruan informazioa eskainiko diegu norbanakoaren behar pertsonalizatuera egokituz. Hori dela eta, gure zerbitzuaren balioa guztiz kualitatiboa da, hots, gure bezeroei ahalik eta arreta egokiena eskaintzea bilatzen dugu.

Euskal Herrira urtero etortzen diren ikasle etorkinen kopuru handia ikusita, inguruko ikasleei aholkularitza eskaintzeaz gain herrialdetik kanpoko beste irakaskuntzako erakunde batzuekin harremanetan jarriko gara, ikasle etorkinei laguntza eskaintzeko.

Grafiko honetan 2000-2012 urteetan zehar Euskal Herriko probintziek jaso dituzten ikasle etorkin kopuruaren hazkundera ikus daiteke.



Are gehiago, beste enpresetatik bereizten gaituena da orientazioa eta laguntza online izateaz gain, presentzialki ere lana egiten dugula, bezeroenganako konfiantza eta gertutasuna bermatuz.